

## **DIRU SARRERAK**

**Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Gure produktuaren pvp-a izango zen 8,99€-koa (prezioa alda daiteke).

Pultsera eskuratzeko, hainbat aukera izango dituzte bezeroek: Metroaren edo euskotrenaren instalazioen lehiatiletan, kalean aurkitzen diren postuetan edo internet bidez. Internet bidez erosteko prozesuan, bezeroek haien helbidea emango dute eta haien datuak emango dituzte pultsera pertsonalizatua izatekotan.

Bizkaiko Garraioen Partzuergoaren webgunean izango dute pultsera erosteko aukera.

Pultseraren ordainketa ordainketa bakarrean izango da eta prezio finkoa izango da.

### **BESTE TARIFAK**

Barik Giza eskumuturrekoak Gizatrans eskumuturreko titulua du. Txartelean kargatutako kreditua bidaiak egin ahala kontsumitzen da. 65 urtetik gorakoek, erabateko baliaezintasuna, baliaezintasun handia edo % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna egiaztatzen dutenek eska dezakete.

Gazte txartela: Aldi baterako eskumuturrekoa, Bizkaian erroldatuta dauden 26 urtetik beherakoentzat, bidaiak mugagabeak egiteko, hautatutako eremuetan, ondoz ondoko 30 eguneko epean, indarraldia hasten den egunetik hasita.